

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**116/2022 Foru Dekretua, apirilaren 13koa, diputatu nagusiarena, norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia onesten duena, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2021-2022 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko**

Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia proposatu du, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2021-2022 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenagoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen lekualdatutako ikasgelen (2021-2022) gastuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia, foru dekretu honekin batera I. eranskinean (oinarriak) eta II. eranskinean (inprimakia) ageri dena. Deialdia 40.000,00 euroz hornitua egongo da gehienez, eta Diputatu nagusiaren sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan (ALHAO, 84. zenbakia., uztailaren 27koa) aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2022rako gastu aurrekontuko 02401. G/335021/48100039 partidatik ordainduko da (zorpekin erreferentzia: 105.1451).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, erakunde eskatzaileek eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu ahal izango du.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duen arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022 apirilaren 13a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**

**I. ERANSKINA****2021-2022 IKASTURTEKO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO BARRENDEGIKO IKASGELA LEKUALDATUEN GASTUAK FINANTZATZEKO LEHIAKETA BIDEZKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA**

Oinarriak

**Lehenengoa. Xedea eta helburua**

Deialdi honen xedea da Arabako euskaltegiei laguntzea haiei loturiko ikasgela lekualdatuek eragindako gastuak ordaintzen, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Sailaren dirulaguntzak (ALHAO 84 zenbakia, 2020ko uztailaren 27koa) arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, xedatutakoaren esparruan.

**Bigarrena. Aurrekontu egozpena**

Ematen diren dirulaguntza guztiek ezin izango dute 40.000 euro baino gehiago egin. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2022ko gastuen aurrekontuko 02401. G/335021/48100039 ("ikasgela lekualdatuetarako dirulaguntzak") partidaren kontura ordainduko da.

**Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak**

Deialdi honetako dirulaguntzak eskatu ditzakete euskaltegiek, baldin egoitza Araban edo Trebiñuko barrenegian badute eta euskaltegia dagoen herritik kanpo ikasgela lekualdatuak badituzte. Euskararen Foru Zerbitzuak ikasgela lekualdatuei buruzko ziurtagiria eskatuko dio HABEri.

Diputatu Nagusiaren Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak hirugarren oinarri aipatzen dituen egoeretan dauden euskaltegiak geratuko dira deialdi honetatik kanpo.

**Laugarrena. Laguntzen zuzkidura**

Diruz lagungarria izango da euskaltegiaren Arabako egoitzatik euskaltegi bakoitzari loturiko ikasgela lekualdatua edo ikasgela lekualdatuak dauden udalerrira arteko joan-etorriko kilometrogastua 2021-2022 ikasturtean izandako eskola egunen kopuruarekin biderkatuz.

**Bosgarrena. Aurkeztu beharreko agiriak**

Eskaerak Diputatu Nagusiaren sailari zuzenduko zaizkio, Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzura, hain zuzen, agiri hauekin batera:

a) Eskaera II. eranskinaren arabera.

b) Ordezkararen ahalordea eskaera erakundearen izenean aurkezteko. Aldez aurretik aurkeztu bada Euskararen Foru Zerbitzuan, hala adieraziko da eskabidean, eta ez da aurkeztu beharko.

c) Eskabide honen aurretik erakundearen identifikazio-daturik aurkeztu ez bada, eta erakundeari alta eman ahal izateko edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian dauden datuak eguneratzeko, baimendutako pertsonak sinatutako dokumentu berean honako datu hauek aurkeztuko dira (II. eranskinaren arabera, bankuko datuak):

- Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa edo posta elektronikoa.
- Banku kontuaren zenbakia, hogeit digituekin eta IBANarekin.
- Identifikazio fiskaleko txartela (IFZ).

d) Euskaltegiari loturiko ikasgela lekualdatuak, hau da, eskola egun kopurua eta 2021-2022 ikasturtean lekualdatu diren herrien zehaztasuna adierazi behar da, II. eranskinaren arabera.

e) Erakunde eskatzailea soldatapeko langilerik gabeko irabazi-asmorik gabeko erakundea izateagatik edo 800 eurotik beherako diru-laguntza izateagatik hura egiaztatetik salbuetsita egon ezean, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko da.

Zerga betebeharrari eta Gizarte Segurantzarekikoari dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko. Erakunde eskatzailea berariaz horren aurka badago, erakundeak berak aurkeztu beharko ditu ziurtagiriak.

f) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12.2 artikuluan agertutako debekurik ez duelako erantzukizunpeko adierazpena. (II. eranskinean sartuta dago).

g) Aurkeztutako informazioa egiazkoa dela eta dokumentazioa benetakoa dela eta jatorrizkoekin bat datorrela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskinean sartuta dago).

2. Datuen formularioan edo horrekin batera aurkezten diren dokumentazioa akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren.

#### **Seigarrena. Eskaerak elektronikoki aurkezteko betebeharra**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, nahitaez aurkeztu behar dira telematikoki, bai Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez (Erregistro Elektronikoko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), bai beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko elkargokideek, nahitaez elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional batean ari direnek, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta Administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesatu bat ordezkatzeko dutenek.

2. Ematen diren kopiek balioa izango dute dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

#### **Zazpigarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hogeii egun balioudunekoa izango da, 2022 ko uztailaren 1etik aurrera, egun hori barne.

#### **Zortzigarrena. Prozeduraren instrukzioa**

1. Euskararen Foru Zerbitzua izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna, hain zuzen, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren saileko Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaritzakoa.

2. Dirulaguntzak puntuazio bidezko banaketa sistemaren bidez banatuko dira. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa —40.000 euro— euskaltegi guztiek egindako kilometro kopuruaren artean zatituko da. Horrela, puntuaren balioa zein den jakingo dugu, eta gehienez kilometroko 0,70 euro eman ahal izango da.

**Bederatzigarrena. Ebazpena**

1. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu, zeinak osaera hau izango baitu: lehen-dakari, Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaritza; kideak, Euskara Foru Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat; Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

2. Eskatzaileari ez zaio entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Sei hilabeteko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, interesdun entitateek eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 43. artikuluan xedatutakoarekin.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

**Hamargarrena. Laguntza ordaintzea**

Dirulaguntza osorik euskaltegi bakoitzari ordainduko zaio, dirulaguntza emateko ebazpena hartu ondoren.

**Hamaikagarrena. Dirulaguntza aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik izanez gero, eta honako hauekin batera beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratuz gero erakunde publiko edo pribatu batek emanik, gerta liteke dirulaguntzak esleitzeko ebazpena aldatzea, are dirulaguntzak itzuli beharra ere.

**Hamabigarrena. Dirulaguntza itzultzea**

1. Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dagokion berandutze-interesa eskatzea, Foru Gobernuaren Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan aurreikusitako kasuetan (Diputatu Nagusiaren Departamentuaren lehia-araubideko diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak onartu zituen dekretu horrek), eta bereziki honako kasu hauetan:

– Diru-laguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatzuz.

– Helburua, jarduera edo proiektua osorik edo zati batean ez betetzea, edo diru-laguntza ematea eragin duen jokabidea ez hartzea.

– Indarrean dagoen araudian aurreikusitako egiaztapen eta kontrol finantzarioko jarduketei aurre egitea, desenkusatzeari, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuen kontserbazioari betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezinezkoa bada jasotako funtsei emandako erabilera egiaztatzea, diruz lagundutako jardueren helburua, errealitatea eta erregulartasuna betetzea, edo helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak ematea edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europa Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

– Administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, bai eta onuradunek diru-laguntza ematerakoan beren gain hartutako konpromisoak ere, baldin eta onuradunek helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edo diru-laguntza emateko oinarri den portaera hartzeko moduari eragiten badiote.

2. Baldin eta administrazio publikoek edo estatuko zein atzerriko erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntza edo laguntzen zenbatekoak, bakarka edo beste batzuekin batera, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditzen badu, Arabako Foru Aldundiak aldatu egingo du emakida, eta, hala badagokio, egindako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina itzultzera behartuko du.

3. Onartutako laguntzaren gainean jasotako zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta horien kobrantza Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera egingo da. Betebehar horrek ez du zerikusirik izango, hala badagokio, eska daitezkeen zehapenekin.

#### **Hamairugarrena. Garapena**

Diputatu Nagusiaren Saileko Foru Diputatuak deialdia garatzeko egoki jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan araututakoa bete dela. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute.

#### **Hamalagarrena. Interpretazioa**

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, Aldundi honetako Diputatu Nagusiaren Sailak ebatziko du.

#### **Hamabosgarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek, estatuko nahiz nazioartekoek, jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, matrikularen kostua baino handiagoa.

#### **Hamaseigarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio hedabideetan. Deialdia eta eranskinak digitalki eskura daitezke [www.araba.eus](http://www.araba.eus) web-orrian.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

## 2021-2022 ikasturterako ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

### 2022

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar  
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2021-2022.

Diputatu Nagusiaren Salla

Departamento de Diputado General

II ERANSKINA ■ ANEXO II

Eskaera zk. ■ N° Solicitud      Eskatera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

### ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE (1)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo				Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo		
<input type="checkbox"/> IKZ CIF	<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro	[ ]		<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	<input type="checkbox"/> Ez binarioa/ No binario
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social				Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
[ ]				[ ]		[ ]		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
[ ]				[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]
Herrialdea ■ País		Probintzia ■ Provincia		Udalerrria ■ Municipio		Herria ■ Localidad		P. K. ■ C. P.
[ ]		[ ]		[ ]		[ ]		[ ]
Telefonoa ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil		Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		
[ ]		[ ]		[ ]		[ ]		

### JAKINARAZPENAK ■ NOTIFICACIONES

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailerek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinazpen elektronikoak eskuratu ahal izango dituzte hartzailerek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Erakunde eskatzaileak gailu elektroniko bat eta/edo helbide elektroniko bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:


Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Posta elektronikoa ■ Correo Electrónico	Telefono mugikor zenbakia ■ Número de teléfono móvil
[ ]	[ ]

Orria ■ Hoja 1/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>2021-2022 ikasturterako ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria</b></p> <p><b>2022</b></p> <p>Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar los gastos de las aulas desplazadas, curso 2021-2022.</p>
	<p>Diputatu Nagusiaren Saila</p>

Departamento de Diputado General

II ERANSKINA ■ ANEXO II

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
<b>Izena ■ Nombre</b> <input type="text"/>			<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>		
<b>Protokolo zk. ■ N° protocolo</b> <input type="text"/>			<b>Data ■ Fecha</b> <input type="text"/>		<b>Notarioa ■ Notario</b> <input type="text"/>		
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>		<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>		<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>		<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>	

- Entitateak soldatapeko langileak dauzka ■ La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo**
- Administrazioak diru-laguntza ordaintzeko baldintzekin lotura zuzena duten datu fiskalak ofizioz kontsultatzearen aurka nago (Ofizioz kontsultatuko litzateke erakundeak egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, datu horren ardura duten administrazioen aurrean).** ■ Me opongo a que la Administración consulte de oficio los datos de carácter fiscal que tengan relación directa con los requisitos para el abono de la subvención (Se consultaría de oficio, ante las Administraciones responsables de dicho dato, si la entidad está al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social).

Euskaltea dagoen udalerrria Municipio donde se situa el euskaltegi	Ikasgela hartuko duen udalerrria Municipio que tomará el aula	Talde kopurua Número de grupos	Ikasturtea Curso académico	Ikasturtearen eskola egun kopurua Número de días lectivos del curso	Joan etorria Ida y vuelta	Km urtean talde bakoitzeko Km anuales por grupo
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Orria ■ Hoja 2/5



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

## 2021-2022 ikasturterako ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

### 2022

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar  
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2021-2022.

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

II ERANSKINA ■ ANEXO II

#### BANKUEN DATUAK (HIRUGARRENEN FITXA) (2) ■ DATOS BANCARIOS (FICHA DE TERCEROS) (2)

Aurretik Arabako Foru Aldundiaren diru-sarrerarik jaso ez bada edo banku-helbideratzearen datuak aldatzen badira soilik bete beharko da. ■ Cumplimentar únicamente en caso de no haber percibido anteriormente ningún ingreso de la Diputación Foral de Álava o en caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria.

BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
<p><b>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua)</b> ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>..... .....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p><b>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua</b> ■ Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>..... .....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de.....</p> <p><b>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</b>  <input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, <b>ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</b>  <input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan</p> <p>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:  <input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <b>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</b>  <input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 3/5





Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

## 2021-2022 ikasturterako ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

### 2022

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar  
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2021-2022.

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

II ERANSKINA ■ ANEXO II

#### ERANTSITAKO AGIRIAK ■ : DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

- Elkartearen ordezkartizan diharduela egiaztatzen duen agiria (aurretiaz ez bada aurkeztu edo aldaketarik badago)** ■ Documento que acredite que actúa en representación de la asociación o entidad beneficiaria (si no ha sido presentado anteriormente o ha sufrido algún cambio).
- Hirugarrenen fitxa eta erakundearen IFKren fotokopia (aurretik ekarri ez badira edo datuak aldatu badira)** ■ Ficha de terceros y fotocopia del CIF de la Entidad (si no han sido aportados con anterioridad o han cambiado los datos)
- Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ziurtagiriak (Administrazioak kontsulta egiteari uko egin badio)** ■ Certificados de Hacienda y Seguridad Social (en caso de haber rechazado la consulta de oficio por la administración).

#### ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

Ordezkatzen dudun erakundea ez da erori Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluko eta Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12.2 artikuluko debekuetan, eta ez da zehatu Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren IV. tituluari aitapenaren arau-hausteengatik.

Adierazten dut aurkeztutako informazioa egiazkoa dela eta aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla eta jatorrizkoekin bat datoze.

Era berean, berdintasunaren arloko araudia betez, hau adierazten dut:

- Ez ordezkatzeko dudun erakundeak, ez ordezkatzeko dudun erakundearen gobernu- edo administrazio-organismoetako kide den pertsona juridiko edo erakunderen batek, onarpen-prozesuetan edo funtzionamenduan sexuagatik zuzenean edo/eta zeharkako diskriminazio-ekintzak egiten dituenik, DLoren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasunerako Legearen 24. artikuluan (2) xedatutakoaren arabera.

- Ez ordezkatzeko dudun elkarte edo erakundeak, ez eta haren gobernu- edo administrazio-organismoetako kide den inork ere, ez duela zigor administratiborik edo penalik jaso abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginetik eratorritako sexu-bereizkeriagatik eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteengatik.

#### DECLARACIÓN RESPONSABLE

La entidad a la que represento no incurre en ninguna de las prohibiciones del artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones y del artículo 12.2 de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava, ni ha sido sancionada por las infracciones a las que se refiere el Título IV de la Ley General de Subvenciones.

Declaro que la información presentada es veraz y que los documentos presentados son auténticos y coinciden con los originales.

Asimismo, en cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24 (2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

- Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Orria ■ Hoja 4/5



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

www.araba.eus

## 2021-2022 ikasterterako ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

### 2022

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar  
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2021-2022.

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

II ERANSKINA ■ ANEXO II

#### Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko T67 EUSKARAREN SUSTAPENA fitxategian sartuko direla. Fitxategi horren tratamenduak Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira. Zure datuen konfidentziasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo. Datuak atzitzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu DBEOk aitortzen dituen eskubideez baliatzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5, PK 01001 Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

#### Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el fichero T67 PROMOCIÓN DEL EUSKERA titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de las actividades de promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

#### Oharra (2)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkie eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

#### Nota (2)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Orria ■ Hoja 5/5